



GORKA RUBIO / FOKU

checking-a egiteko aplikazio bat, hau da, gertaera edo informazio bat egiaztatzeko tresna bat. Kazetaritza munduan edo orokorrean informazioaren munduan oso interesgarria da. Gaur egun behar izugarria dago jakiteko zerbait benetakoa den edo ez. Hizkuntza ereduak horretarako aukera ematen dute.

Zer gehiago egin daiteke?

ALDABE: Aipatutakoak adibide soil batzuk dira, azkenean erabilera irudimenaren edo behararen arabera izan baitaiteke. Hemen garatzen ari garen ereduak ere badituzte gaitasun horiek. Norberak egokitu behar du bere beharretara. Milaka aukera daude, baita ChatGPT bat sortzea ere, zergatik ez? Gu probak egiten ari gara, eta ondo dabil. Elkarrekintza bat izateko gai da, horrelako sistemak garatzeko gai bagara.

Espainiako Gobernuak abiatu zuen ALIA. Abiapuntua eta oinarria gaztelania da. Euskarak zer leku du proiektuan? Zer ekarpen egin dion?

ARREGI: Lehen bulkada gaztelania izan zen. Gure lehen lana izan zen

esatea hizkuntza koofizialak ere hor zeudela.

Elkarlana egon da?

ALDABE: Bai, badaude eredu eleaiztunak. Elkarrengandik ikasi dugu.

Hizkuntza gutxituetan ari zaren artean konplizitatea sortzen da?

ARREGI: Zalantzarik gabe. Katalanekin eta galegoekin dugun konplizitatea ez da oraingoa. Hizkuntza gutxitua izateak konplizitatea sortzen du.

Zer eman dio ALIAk Euskal Herriari eta euskarari? Euskarazko hizkuntza eredu, Latxa, hobetu du?

ARREGI: Ikertzen jarraitzeko aukera eta baliabideak eman dizkigu. Garrantzitsua da gure ahotsa ere hor egotea, toki bat izatea ikerketa mailan.

ALDABE: Transferentzia egiten ari gara, enpresei gauzak eskaini dizkiegu, eta jauzia egiten ari gara. Horrek Latxa hizkuntza eredu hobetzeko modua ematen digu.

ALIAren helburua ez da Espainiako Gobernuak adimen artifizialeko eredu propio bat sortzea ChatGPTekin, Gemini-

rekin, Deep Seek-ekin... lehia-tzeko?

ARREGI: Ez da helburua bere horretan.

Euskarazko eredurik garatua eta aurreratuena zuena da, Latxa.

ARREGI: Garatuena, ahaltuena eta handiena da, eta oraingoa dimentsioak asko esan nahi du. Etengabe probatzen dugu, proiektu bizia da. Hitz zentroak sortu du Latxa, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Ikergaitu proiektuaren bidez.

Adimen artifizialeko hizkuntza ereduena, burujabetzari eta politikari dagokion erabakia da.

Badirudi herrialde bakoitzak eduki behar duela adimen artifizialeko bere hizkuntza eredu.

ARREGI: Egiteko modurik onena da teknologia zuk zeuk garatzea. Ez baduzu garatzen, besteek garatzen badute, atzetik'zoaz. Burujabetza teknologikoaren kontzeptua gehiago ikusten dut ahalduz ariketa baten gisan: esatea gai gaila eredu batsortzeko. Horrek badu bere xarma, herri proiektu bat izateak. Adimen artifizialaren olatuak harrapatu gaitu, eta, horri aurre egiteko, zer egin behar dugu? Erabiltzaile eta ikusle soil izan behar dugu, edo geuretik jarri? Gure erantzuna, zalantzarik gabe, bigarrena da.

Jakinda agian ez duzuela hobetuko ChatGPTk eta Geminik euskaraz egiten dutena?

ARREGI: Ados, baina Latxa guk egindakoa da, hizkuntza komunitate baten proiektua da. Teknologikoki gaitasuna izatea eta eza-gutza izatea funtsezkoa da, zeren bestela beste batzuen gain uzten ari zara, eta hori heriotza da, kito. Gaitasuna izan behar dugu hori egiteko. Horretarako jende presatua behar dugu, adituak.

Badaude?

ARREGI: Zorionez, gaur egun Euskal Herrian badago jendea. Nazioartean aitortza jasotzen dugu, baliabide urriko hizkuntzek asko begiratzen dute Euskal Herrira. Hori garrantzitsua da, nahiz eta badakigun oraingoz ez gaila

iritsiko erraldoi teknologikoen sortutakoan mailara. Haiek beste maila batean daude baliabideei dagokienez.

Baina Latxa Euskal Herriko errealitatean oinarritutako eredu bat da, bertan sortutako edukiarekin elikatua.

ALDABE: Eta jakinda zertan oinarritua dagoen. Gure apustua, hala sinesten dugulako, hizkuntza eredu irekien aldekoa da. Horrela elkarlana bultzatzen duzu, eta ekosistema bat sortu.

ARREGI: Latxak akaso zeregin batzuetan ez du lortuko inondik ere beste eredu erraldoi horien maila, baina badakigu, gutxienez, euskara, euskal kultura eta gure herri izaera zainduko ditugula. Latxa plazaratzen denean, jendeak esango digu zer egiten duen ondo eta zer ez. Eta horrek hobetzera behartuko gaitu.

Latxa publiko bihurtzeko, jendeak erabiltzeko, eredu aberastuko luke?

ALDABE: Izugarri.

ARREGI: Eredu teknikoki hobetuko litzateke, eta soziolinguistikaren ikuspegitik eta hizkuntzarekiko atxikimenduan aldetik, gustatuko litzaziguke jendeak proiektua bere sentitzea, pentsatzea garatzen laguntzen ari dela. Horrek badu balio erantsi oso garrantzitsu bat, eta ez sentitzea adimen artifiziala gainera etorri zaion zerbait dela.

Zeintzuk dira Latxaren hurrengo urratsak?

ALDABE: Ikerketari dagokionez, testua eta ahotsa bakarrik ez ulertzea, irudien tratamendurakin ere gauzak egin ahal izatea. Gero, domeinuetara egokitzea: hizkuntza eredu hauek orokorrak izaten dira, munduaren ezagutza oso zabala eta egokia dute, baina gero, esaterako, medikuntzan aplikatzeko edo euskara ikasteko erabiltzeko, egokitu egin behar dituzu. Horretan ari gara.

ARREGI: Noizbait eredu publiko egin nahi dugu. Uste dut orduan gardenak izan behar dugula: publiko egindoen sistemaren ahalak eta mugak zein diren garbi azaltzea. ●



«Gure apustua, hala sinesten dugulako, hizkuntza eredu irekien aldekoa da. Ekosistema bat sortzen duzulako»

«Adimen artifizialeko hizkuntza ereduak hitz egiten dugunean, askotan testuaz hitz egiten dugu, baina ahotsa ere badago»

ITZIAR ALDABE
Hitz zentroko ikerlarria

BILTEGI DESMONTAGARRIAK

- Azkarra
- Zimendurik GABE
- Muntatze ZIURTAGIRIA
- Behar duzun neurria
- Itxitura askotarikoak

946 710 800
etxekit@etxekit.com
www.etxekit.com / eus

etxekit
errealitate modularra